

**J. L. ANSORENA ERESBILen FUNDATZAILEARI OMENALDIA
HOMENAJE A J.L.ANSORENA FUNDADOR DE ERESBIL**

2018-05-02 Errenteria 02-05-2018

Lehendakariaren hitzaldia-Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, herri ordezkariok, herritarrok, Jose Luis Ansorena jauna eta famili kideok, jaun andreok, arratsalde on guztioi.

Esan ohi da musikarik gabeko herri bat arimarik gabeko herria dela. Senik, nortasunik gabekoa. Gaur Eresbil bisitatzeko aukera izan dut, Errenterian daukazuen altxor hori, eta jabetu naiz Euskadin musikarekiko dugun zaletasuna eta maitasuna sakona eta benetakoa dela.

Plaza honetan ere, ikusi ahal izan dugu, Errenterian musikarekiko duzuen pasioa, maite-sua. Bistan dago Euskadi osoan, gure arima bizirik mantentzeko gai izan garela; su hori piztuta mantentzen asmatu dugula; gure sena eta nortasuna zabaltzen jarraitzeko indarra badugula.

Este País ha logrado mantener viva la llama de la música, expresión de nuestra cultura e identidad. Se lo debemos a personas como Jose Luis Ansorena, alma mater de Eresbil, persona trabajadora, comprometida, generosa y cercana.

Eskerrik asko Jose Luis. Llegaste a Errenteria en 1966 y te afanaste en reavivar la llama de un movimiento cultural latente en aquellos años. Gracias a tu dedicación y ejemplo lograste impulsar un florecimiento de la música y la cultura que prendió y se expandió por todo el País.

Fuiste y como tú, otros muchos de tu generación, capaces de restablecer el vínculo con la tradición cultural vasca y la semilla que sembrasteis explica que contemos hoy con expresiones dinámicas, contemporáneas y de vanguardia. En estos tiempos la cultura forma parte de nuestra vida y reconocemos vuestra aportación en aquellos duros momentos de incompreensión, prohibición y persecución.

Eskerrik asko Jose Luis por lo que hicisteis y por CÓMO lo hicisteis. Eres ejemplo de trabajo altruista, entrega y dedicación a la música y la cultura. Tu

legado en Eresbil demuestra el valor de preservar nuestro patrimonio musical heredado de las y los compositores vascos.

Etorkizunari ere begiratu zenion. Hitz egin zenigun sorkuntza garaikidea anbizioz sustatzeko garrantziaz edota musika koralaren botereaz, ezberdinen arteko elkargune bezala. Fede handi eta oneko pertsona, ez zinen ameskerietan galdu, ametsak egia bilakatzeko lan egin zenuen.

Tu trabajo y tu liderazgo dio fruto, convirtió tus sueños en realidad. Fuiste altruista, discreto, generoso. Fuiste un activista cultural y, hoy, el pueblo de Errenteria demuestra que no te olvida y te ha querido recompensar con todo su cariño y reconocimiento.

Beraz, Jose Luis, eskerrik asko herri honen arima, sena eta nortasuna indartu eta zabaldu egin dituzu. Zorionak eta eskerrik asko bihotz bihotzez eta, gaur zure urtebetetzean, bereziki zorionak zuri.